

ENERGIA. Abanto-Zierbena, Zornotza eta Zabalgarbiko planten aurkako jarrera agertu dau



JOSU ETXEBARRIOSTE

EHko ordezkartza atzoko prentsaurrean hartutako irudian, ezkerrean Iñaki Antigüedad legebiltzarkidea.

EH: «Energiaren ganean beharrezkoa da benetako eztabaida publikoa »

Asteburuko protestetan parte hartzeko deialdia plazaratu dau Ezker Abertzaleak

Hasier Rekondo

Herrialdean garatzekoak diran energia egitasmoen (Zornotza-ko ESBren zentral termikoa, Abanto-Zierbenako Petronorreko gasifikatzailea eta Aldundiak kudeatuko dauan Zabalgarbi errauste planta) kontrako jarrera argia erakutsi dau herrialdeko Ezker Abertzaleak.

Iñaki Antigüedad legebiltzalkidearen esanetan, «asteburuan Bizkaian zehar egingo diran mobilizazioen aldeko jarrera adierazo gura dogu». Antigüedadek ganeraturakoa-
ren arabera, «euskal erakunde-
ek ez dabe politika energetiko
propiorik, sustatzen dabezan
egitasmoek entepresa multi-
nazionalen onurarako bakarrik

balio dabe». EHren ustetan, azken aldian emoten dan energia sorkuntzak gehiegizko ekoizpena dau, % 250 Hego Euskal Herrian, eta entepresa pribatuak esportatzaile bihurtuko dira, legebiltzarkidearen eritxian. EHk, igarri dituan azpijokoak salatzen dauz, «bardin jaku onuraduna BBVA edo BBK izan, ez dogu ezelako diferentziarik ikusten».

Energia elektrikoaren ganean eztabaida publikoa eskatzen dau Ezker Abertzaleak: dato-
rren martiaren 1ean mahainguru publikoa antolatuko dau Ba-

ESANAK

IÑAKI ANTIGÜEDAD

(Gasteizko Legebiltzarkidea)

«Erakundeek multinazionaleri negozioa erreztea da helburu bakarra, energiaren alorrean»

«Mahai inguru publikoa eratuko dogu Batzar Nagusietan, teknikari eta agintariakaz»

tzar Nagusietan, erakundeetako teknikari eta arduradunen parte hartzea bilatuko daua.

Asteburu energetikoa

Hiru manifestazino antolatu dira Bizkaian zehar, astebururako. Zornotza Bizirikek deitutako ESB entepresa irlandarren zentral termikoaren aurkako (gaur eguerdian), Abantoko Karrerasesko auzokideek Petronorreko kudeatuko gura dauan gasifikatzailearen kontra deitutakoa (bihar eguerdian) eta azkenez, ekologistek deituta, Zabalgarbiko errauste planta gaitzesteko, Bilbon eratutakoa.

Atzoko prentsaurrean, egitasmoak gauzatzekoak diran herrietako zinegotzien parte hartzea izan zan. Abantoko Juanjo Zarragaren berbetan, «Petronorreko plantak energia esportazino jarduerari ekingo deutso, % 80an. Bizkaitik zelan aterako daben jakin gura genduke, goi-tentsio makrolineak arazoak sortuko ditu».

Garikoitz Azkuna Zornotzako zinegotziaren berbetan, «ESB entepresak Boroan eregi gura dauan zentral termikoa osasun kalte handiak eragingo ditu; ganera Ikastolatik eta herri plaza-
tik kilometro bakarrera izango da». Bergara Ahaldun Nagusiari leporatu eutson, Azkunak, «lur salmentaren bidegabeke-
ria», dala eta.

MOBILIZAZINOAK

Segurtasun neurriak

Hiru herri mobilizazino antolatu ditue asteburu honetan herrialdean, energia eta errauste plantek ingurumenean sortu leikezan kalteak dirala eta : Zornotzan, Bilbon eta Abanton, energia barritagarrien aldeko aldarrikapen dibertsifikatuan.

PETRONORREKO GASIFIKATZAILEA. Karrerasesko auzotarrek segurtasun neurri eza salatzen dabe, besteak beste: planta barria

etxebizitzetatik 100 metrotara bakarrik kokatuko dabe. Beste alde batetik, gas biltzetan sortu leitekean ihesaldi batek Bilbo osoa harrapatuko leuke, segurtasun neurri bereziak hartu ez izan ezker, Damaso Lazkano EHko zinegotxiaren ustez.

BOROAKO ZIKLO KONBINATUKO ZENTRALA. Honezkero, 15.500 sinadura bildu ditu Bizkaia Bizirikek sustatutako herri ekimenak. ESB multinazionalak zentral termikoa eregiteko lurak erosi eutsazan Aldundiari. Herritarren esanetan, zentralak Boroa auzoko errekek eta Ibaizabal ibai

kutsatuko ditu. Honezaz ganera, ekologistek eritxian, CO2ko isurketek klima aldaketak eragin leikez.

ZABALGARBIKO ZABOR ERRAUSTE PLANTA.

Ekologistek eta zenbait talde politikok eta sindikatuk gogor kritikatu dabe Artikan eregitekoa dan plantak sortu leikezan kutsadura arazoak: zaborrak negozioarako erabiltea eta plantak jaurtiko dituan dioxinek eragin leikezan minbiziek sortu ditue protesta nagusiak. Honezaz ganera, EHko Arantza Urkaregik udalak erakutsi dauan eztabaigarako gurari eza salatu dau.

BILBO

PSE-EEK Udaltzaingoaren preminazko berregituraketa eskatzen dau

H. R.

PSE-EEK Udaltzaingoa-
ren preminazko berregi-
turaketa eskatzen dauan
mozinoa aurkeztuko
dau, hurrengo Udalbat-
zan. Sozialisten eritxian, udal polizia hon-
datu beharrean dago
gaur egun. Dimas Sañu-
do bozeroaleak herrita-
rren segurtasun neurriak
zaintzeko patruilarik ez
izatea kritikatu eban
atzoko eskainitako pren-
tsaurrean. «Lerro bitan
ez aparkatze lanetarako
erabilten dira eta arra-
tsalde zein asteburueta-
ko txandetan ez da udal-
tzain bururik», ganeratu
eban Sañudok. Sozialis-
ten mozinoak Udaltzain-
goan egin beharreko az-
terketa sakona eskatuko
dau: erakundeak dauzan
eskumenak behingoz
ezarri gurean. Honez ga-
nera, udaltzainen kopu-
rua zehaztea eta organi-
gramaren nondik nora-
koa ezartzea exijituko
ditu.

Zentzu bako salaketak

Adierazpenok gezurtatu
asmotan, Juan Jose Ola-
barria EAJko Uri Segur-
tasunerako zinegotziak,
«sozialisten estrategiak
zarata egitea eta egoera
kaskarra agertaraztea
besterik ez dau gura»,
erantzun eban, prentsa
oharraren bidez. Jeltza-
learen eritxian, ausnar-
keta sakona eta apala
behar dau Udaltzaingo-
ak. Erakundeko ardura-
dun politikoaren berbe-
ta, «talde sozialistak
behin eta barriz aitatu
izan dau, arazo honeen
ganean Udalbatzan ez-
tabaidatzea ez dala tra-
tamendurik egokiena».

Zinegotzi delegatuak
ganontzeko talde politi-
koekaz lanean jarduteko
asmoa azaldu dau. «Ur-
tarrilaren 3an bilera izan
genduan, Udaltzaigoko
buruak tartean zirala,
eta datu eta azalpen guz-
tiak eskaini genduzan
bertan», ganeratu.

Bestetik, zinegotzi so-
zialistek uriburuko Udal-
tzaingoaren eta Ertzain-
tzaren arteko koordina-
zinoa eta eskumenak
argitu gura ditue.